



OSKAR ELIZBURU



MAITE ETXEBERRIA

KOTXE ELEKTRIKUAK HEMEN DITTUN/K

Aurreko elkarrizketan Txurrukengo istorioak eta umetako gogorapenak aittatu hittunan eta, zabaldutako bide hori aprobe-txatuz, gure auzoko batek esandakua gogoratu nahi jittunat.

Aspaldi jua bajakun be, gure Txurrukenen Nostradamus bat izan genduala esatera nator gaur; etorki-zunerako ikuspegixa modu bitxian azaldu zoskuna.

Askok eta askok eukiko jittun haren esanak goguan: kotxe elektrikua gora eta kotxe elektrikua behera. Batek jakin zein motatako kabliak erabilitta; argindarra egoki aprobe-txatu eta kotxe elektrikuak, zientoka barik, miloika egingo zirala esaten jonan; edozeinen esku egongo zirala.

Aspaldixan kotxe elektrikuena, etorkizuna baino, errealitatia dala entzun eta irakurri dogunian, harek esaten zittuanak serixo hartzia merezi dabela uste jonat.

Horrek horrela, berak esaten eban hurrengo hau be etorri jatan gogora, Maite. Hainbeste kotxe elektrikon-dako aparkalekuak egitteko, elizak erabili biharko zirala.

Gaur egun elizara hain jente gutxi juaten dala ikusitta, etorkizuna bide horretatik ikusten al don? Herrixan daguan aparkatzeko arazua konpon-tzeko bidia izan leiken? ☞

**Txurrukenen
Nostradamus
bat izan
genduala
esatera nator
gaur**

Oskar Elizburu

**Nola imaginatu
jendea denbora
pasa merkatal
zentro batera
joango zela**

Maite Etxeberria

Auskalo! Nork daki hemendik urte ba-tzuetara eliza zabal eta altuetan ez ete diren eskalextri antzerako bihurgunez betetako bideak egingo, eta kotxeak bertan aparkatzeko erabili. Egon be, ba-jaosik eraikita norberaren balkoian kotxeak aparkatzeko etxeak, beraz, hori be litekeena dok. Gainera, gaur egun, berrikuntza eta sormena ez dituk ba leku guztietan aipatzen? Aka-so, denbora luzean kateatuta dauden gaiei be, ikutu hori eman beharko jakuek...

Hik aipatzen dituan Txurrukengo sasoi haretan be inork gutxi pentsatzen jua denok mobila belarrira pe-ga-pega izanda eukiko genuenik; eta, orain, joan hadi gilako zubira! Ematen jok denok geure buruarekin berriketan gabizela, ha-runtz eta honuntz, mobila eskuan.

Nola imaginatu jendea denbora pasa merkatal zentro batera joango zela, eta bertan disfrutatu erosketak egiten, zineman, bazkaltzen, elkarri bultzaka, espazio barik eta zerurik ikusi gabe? Nork pentsatuko jua, orduan, hemen arituko ginela horrelakoak kontatzen; Plaentxiako aldizkari baten eta euskaraz? Zeinek txokoak kolorez alaituko zirala handik eta hemendik etorri-takoekin?

Iragarpenak iragarpen, aspaldian bolo-bolo dabilen kontuarekin bukatuko juat. Bali-teke hemendik gutxira, Plaentxiako zuloa betetzea eta etxeak gainaldean jasotzea, eta hantxe, goxo-goxo, arratsalde luzeak eguzki begitan ematea. ☞

Goguan hartzeko

“Itsuen herrian begibakarra alkate”

Euskal atsotitza



GUTUNAK

Alkatearen adierazpenen inguruan

Ordenantza fiskalen inguruan (DV 09/11/08) artikuluan alkateak adierazi zuena:

“Lehendabizi argi geratu behar da tasak ez zirela mahai gainean geratu akordio faltagatik. Horretarako, proposamen alternatiboren bat egon behar delako eta orduan zegoen proposamen bakarra udal gobernu taldearena zen. Oposizioak plenoa baino hamabost egun lehenagotik bere eskuetan zuen dokumentazioa eta ez zuen inolako proposamenik egin. Horregatik, lotsagarria deritza proposamenik egin ez bada, tasak mahai gainean lagatzea”.

Ordenantza fiskalen inguruan (09/11/04) ko Plenoko aktan alkateak adierazi zuena:

“EAJ-k bere proposamenak egin zituen: Lehenengoa, base-rriei zaborrik ez kobratzea izan zen eta gobernu taldeak eran-

Musika Eskolako zuzendari baten dimisioa

Santa Zezilia ospatu berri dugu, Musika Eskolaren 20. urteurrenarekin batera eta Musika Eskolako zuzendaritza kargua uzteko erabakia hartu dut. Lankideei eta Gurasoen Batzordeari nire erabakiaren arrazoiak azaldu ostean, gutun hau idaztea erabaki dut soraluzetarrek euren elkarte kultural garrantzitsuenetako baten gertatu den egoeraren berri jakin behar dutela uste dudalako. Jaialdia antolatuta ondoren, balorazio positiboak jaso nituen soraluzetar eta udaleko zinegotzien aldetik. Orain arte zuzendaritza-kide izan dudana lankidearen aldetik ez zen horrela izan. Santa Zezilia egunean gertatu zen gaizki ulertu baten ondoren, nire lankidearengandik errespetu gabeko tratua jaso nuen. Gaizki ulertua eta jasotako tratua argitzeko borondatez, hitz egiteko ahalegina egin dudana arren, ezinezkoa gertatu da elkarriketa.

Elkartasuna zigortzen den garai honetan...

Legeak aldatu, asmatu...edo bestela legalitatetik kanpo jokatatu. Berdin dio. Dena balio du. Horixe da, senide bezala egin dugun ibilbideak erakutsi diguna.

Gure senideak, Peio eta Lurdes. 20 eta 15 urte daramate giltzaperatuta; egunak dituen 24 orduetatik 20, 22...orduz Soraluzetik ehunka kilometrotara dauden ziegetan sartuta, barkadade osoan...Komunikazio guztiak(kartak,telefono deiak, bisitak) interbenituta dituzte. Gaixo badaude, izorra daitezela!, eta kondena beteta badute, jarrai dezatela beste urte pila bat bahituta! Eta senideoi, 40 minutuz irriak eta malkoak tartekatze Peio eta Lurdesekin, 1200 eta 2000 kilometro egitera behartzen gaituzte, astea joan eta astea etorri... Ez dugu inoiz bide errazik edo leunik ezagutu. Baina azken hilabete-tako gertakariak larritasun eta kezka handiarekin ikusten ari gara. Soraluzen, urteak daramagu ostiralero elkarteratzeak egiten presoen eskubideen defentsan, inongo istilurik gabe, era baketsuan. Gure pankarta eta gure argazkiekin. Itxura denez, orain, aurpegia jartzea eskubide urraketa etengabeari,

tzun zion nahikoa iruditzen zitzaiola iaz baserrientzako onartutako hobaria. Bigarrena zen, tratu txarrak jasan dituzten pertsonen hobariaren bat egitea aipatutako zabor tasa horretan eta gobernu taldearen erantzuna izan zen hobariaren gaia emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko protokoloan sar zitekeela. Azkenik, zabor tasaren igoera txikiagoa izan zedila eskatu zuen EAJ-k, ezer zehaztu gabe (...). Erantzukizunez joka dezatela eskatzen die talde politikoei, mahai gainean utziz gero ezingo direlako tasa berriak urtarrilerako onartu”.

Argi gelditzen da Plenoan gauza bat adierazi eta hedabideetan beste bat esaten duela. Gure aldetik adieraztea, 2010 ko ordenantza fiskalei dagokionean ere, plenoa aktan jasotzen den bezala egin ditugu ekarpenak.

SORALUZeko EAJ/ PNV UDAL TALDEA

Gurasoen Batzordearekin bildu eta behar adinako azalpenak eman ondoren, nire kargua beraien esku utzi dut. Gurasoen Batzordeak, ulertzekoa den bezala, ez du bataren edo bestearen aldeko erabakirik hartu. Azkenean, egoera hau luzatzeak Musika Eskolari dakarkion kalteaz jakitun, nire dimisioa aurkeztea erabaki dut. Zuzendaritzako lana, ez da izan niretzat soldata baten truke egin dudana lan bat bakarrik. Musika barrutik bizi dut eta konpromiso, ardura eta eskaintza osoz lan egin dut beti, eta horrela jokatu behar dela uste dut erantzukizunak dituen lan batean jarduten den guztietan. Hemendik aurrera, ni eskolako irakasle bat gehiago izango naiz eta nire lankideak bakarrik zuzenduko du eskola. Eskerrik asko zuzendaritza lanetan lagundu didazuen pertsona guztioi!

NAGORE SANZ

“delitua” omen da, eta lehengusuaren edo ahizparen argazkia ezin dugu gainean eraman. Elkartasunaren zergatia iritzi publikoari ezkatutzea al da beren azkenengo helburua? Ez al dira konturatzen errealitatea gordina eta tematia dela? 762 euskal preso politikoen existentzia berak disimulu gutxirako ematen du. Ez al da kezgarria inoiz baino preso kopuru handiena edukitzea gaur egun?

Senide eta lagunon kontrako erasoak ugaritu egin dira. Dena gure oinarriko eskubideak defendatu nahi izateagatik. Dena gure senide presoak erabat isolatu eta pertsona gisara suntsitu nahi dituztelako, euren inguru sozial eta afektibotik aldentuz.

Elkartasuna zigortzen den garai honetan, elkartasunak berak oztupo eta zailtasun guztiak gainditzeko daukan indarra aldarrikatu nahi dugu. Bada garaia espertxe politika honi amaiera emateko. Eskubide gehiago zapal ez ditzaten, sortu dezagun elkartasun uholdea...

Urtarrilak 2 manifestazioa Bilbon “Euskal presoak Euskal Herriera, dagozkien eskubideen jabe”.

ARANTXA TXURRUKA, MAITE ETXEBERRIA

Pil-pilean Kultura Elkartek ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

bittartetik



Nikanor Iñurrieta

Julian hargiña

Oin dala 120 urte inguruko istori-xua da hau, neure aittari, Benantzio Iñurrietari ikasitakua:

Julian, hargiña izan arren, bizi za aberats moduan, nahi ebalako bizi eroso munduan.

Nola zan piskat adarjolari eta barregarri, bakoitzari ematen berria beti izan zan arduragabia.

Errentak be nola zittuan zor, etxe jabeak behin gogor: Ez nozu ikusiko berriro aurrian, ditudalako pare bi zapata nik urratu zugana biraka.

Ez al dozu lanikan aurtengo urtian neuri ez pagetako sei hilabedian?

Julianek: Don Koxme, biharrian nabil, baina ugazabetan dirurik ez dabil!

Nola zekien hau zala gezurra, Don Koxme baitzan zoria eta zuhurra, esan zion: Julian, hobe dozu etxe hau libratzia bihar goizian.

Baldin egiten badozu hori, pozik barkatuko dotsut zorra zuri.

Ez dozu hobia etxe bat merkia bilatzia eta errentak zuzen pagatzia?

Julianek: Ez jauna! Nahixago dot jaso errentia eta orain arte lez bertan bizitzia!

Eta baldin bedori bada haserretu, haserria egingo dotsat barkatu!

Eta hola alkarri barkatuaz bedorrek eta nik, Julianek ez dau bihar etxe merkerik.

((ENTZUTEKUAK))

Jon Oñederra eta Sabin Mendizabal, herriko gaztaina saltzaileak



Neguan gaztaina erre beruak jatia baino plan hoberik badago? Herri-xan bikote honek hartu dau gaztainak gertatzeko arduria. Ez da lehenengo urtia horretan dihardutena eta iaz gehixago saldu zebela esan badabe be, gustora dare herrixan gaztainak erosteko dagan ohitturiakin.

Zela doia salmentia?

Momentuz nahiko ondo, baina iaz baino gutxiago saldu dogula konturatu gara. Iaz, gutxi gora-behera, aurtent baino laurden bat gehixago saltzen genduan. Dana dala, ezin gara kexatu. Kilotan azaltziarren, guk 15 kilo gaztaina gertatzen ditugu eta hamabostak saltzen dira. Batzuetan 20 kilo egin izan ditugu eta gaztaina batzuk soberan geratu dira. Iaz, hoge egin eta hogeirak saltzen genduzen.

Orduan jendiak gaztainak erosteko ohitturia dauka, ezta?

Herri-xan gaztainak erosteko ohitturia badago eta adin tarte guztietako jendia hurreratzen da guregana; umiak, gaztiak, nagusixak eta txikiteruak edo poteuan dabizenak be bai.

Noiztik diharduzue gaztaina saltzaile lanetan?

Aurten bosgarren urtia izango da.

Eta zela akordatu jatzen?

Gure bizimodua aurrera etartzeko lan aproposa dala pentsatzen jakulako. Gu gure kabuz jarri gara hemen eta postua zabaldu baino lehenago nahikua lan egin dogu. Aurten, txabolia diseinatu, egurrak batu, moztu eta txabolia gertatu dogu. Montajia esan geinkena gure eskuetan geratu da. Emaitza baina ona izan da.

Ze ordutegi daukazue?

Arratsaldeko 16:00ak aldiari jartzen gara danbolineko sua egitten eta 17:00etatik 21:00etara bittartian egoten gara Plaza Barriko txabolatxuan gaztainak saltzen.

Eta preziua zela adostu dozue?

Laguneri galdetuta eta inguruko herrietako gaztaina saltzailien preziuak begiratuta adostu ditugu guriak. Askotan jendia kexatu jaku hiri haundixen preziu igualak ditugulako, gaztaina dozenia 2 eurora esaterako; eta guk beti berdina erantzuten dogu, gure dozeniak ez dituala bakarrik hamabi gaztaina!

Gaztainak nundik ekarritakuak dira?

Azpeitin erosten ditugu, fruta biltegi baten kantidadea haundixetan, merkiago urtetzen jakulako.

Eta danbolina nundik etaratakua da?

Buff... danbolin honek urte asko egin ditugu gurekin. Uste dogu erregalatutakua dala. ☺

“Gure dozeniak 12 gaztaina baino gehixago ditte”

Pil-pilean

Argitaratzailea: Pil-pilean Kultura Elkartea. Errabal kalea 15- 1., PK 27 - 20590 Soraluze, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04 **e-maila:** aldizkaria@pilpilean.com **Erredakzioa:** Leire Iturbe eta Miren Narbaiza **Erredakzio batzordea:** Arianne Unamuno, Egoitz Unamuno, Enara Agirre, Jon Basauri eta Aitor Madrid **Publizitatea:** Ane Larreategi **Logotipoa:** Pablo Galarraga eta Silvio Vaz **Diseinua eta maketazioa:** Silvio Vaz **Inprimategia:** Gertu Koop. **Banaketa:** Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale **I.Z.K.a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



SORALUZeko UDALA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Pascual CHURRUKA, S.A.

Hotzian eta beruan jotako tornilluak

Errekalde 21 20590 SORALUZE

T. 943 75 00 06
T. 943 75 16 00
F. 943 75 24 61

Hnos. BENITO ANAIK

Etzeko eta Sukaldeko Altzariak
Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

T. eta F. 943 75 20 47
Santa Ana 26, 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

Ezinduen familientzako ikastaroa



SENDIAN PROGRAMA

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Sorluzeko udalak antolatuta eta Ingema fundazioak koordinatuta, adineko ezinduen zaintzen dituzten familientzako ikastaroa egingo dute. Ikastaroa urtarrilaren 18tik 22ra bitartean egingo da, kiroldegiko erakusketa aretoan. Eskola bakoitzak bi orduko iraupena izango du: eguerdiko 15:00etatik arratsaldeko 17:00ra.

Izen ematea

Irantzu Benitok, Gizarte zerbitzuetako arduradunak jakinarazi du, izena emateko epea urtarrilaren 11ra arte zabalik egongo dela eta izen-ematea, Gizarte Zerbitzuetan egin beharko dela bulego ordutegian, goizeko 10:00etatik 13:00era bitartean. [OR](#)

Olio bilketarako kontenedore fijoak ipiniko dituzte

Datorren urtetik aurrera, debabarreneko mankomunitateak eskualdean olio bilketarako kontenedore fijoak ipiniko ditu. Sorluzen hiru kontenedore ezarriko ditu, Olako zubi inguruan, erdigunean eta Ezoziko biribilgune inguruan.

Regina Maiztegi sententziaren zain dago

Hiru urte eta sei hilabete zai egon eta gero, joan den abenduaren 17an amaitu zen Regina Maiztegi sorluzetarraren eta beste 12 lagunen aurkako epaiketa. Bost eguneko epaiketa izan da eta fiskalak eta AVTk bere akusazioa mantendu dute, 7 urteko espetxe zigorra eskatzen dute hamairu lagunentzako. Maiztegi uste du, sententziaren jakinarazpena luze joango dela. 2003an atxilotu zituztenean, guztiek salatu zituzten tratu txarrak.

Kudepark, jolaslekuen mantenurako zerbitzua

Sorluzeko Udalak, Kudepark zerbitzua ipini du sorluze.net orrian. Zerbitzu honen gauzarik aipagarriena, edozein herritarrek jolaslekuetako matxuren berri eman dezaketela da. kudepark.com orriko "Inzidentzia jakinarazi" atalean sartu eta herria eta jolaslekuaren izena zehaztuta konpontzeko eskakizuna bidaltzen zaie mantenimendu teknikariei. Zerbitzu hau, udalak herriko jolaslekuen mantenimendu eta konpontze kostuak gutxitu eta istripuen arriskua txikiagotzeko da.

Lurreko Telebista Digitaleko estaldura zabalik



LTDko egokigailua.

Udalak jakinarazi du LTDko edo Lurreko Telebista Digitaleko estaldura zabalik dagoela. Urtarrilaren 10etik 30era bitartean, telebista seinalea digitalizatu egingo da eta bide analogikoa itzali. Modu horretan, telebista ikusi nahi duenak egokigailu bat beharko du. Egokigailuak, elektrogailu dendetan daude salgai erosi nahi duenarentzat.

Emisioak honako kanaletan hasiko dira:

63 Kanala: TV1 / TV2 / CLAN TV / CANAL 24 H.

64 Kanala: ETB1 / ETB2 / ETB3 / ETB-SAT

66 Kanala: Teledorte / VEO TV / Sony entertainment / Disney channel

67 Kanala: Cuatro / CNN + / 40 latino / La sexta

68 Kanala: Telecinco / La siete / FDF Telecinco / Intereconomia

69 Kanala: Antena 3/ Antena Neox / Antena Nova / GOL TV

Hemendik aurrera eskura daude LTDaren seinaleak aipatutako kanaletan eta antenetan egin behar diren egokitzenak egiteko telekomunikazioen instalatzaileekin harremanetan jartzeko gomendioa egin du udalak. [OR](#)

Egunkariari herri babesa

60 lagunetik gora bildu ziren joan zen zapatuan Egunkaria auziko auzipetuei babesa adierazteko. Honen harira, astean zehar Sorluzeko euskalgintzak hainbat ekitaldi antolatu zituen: bideo-emanaldia, tertulia eta kantu jira esaterako.



Ion Murgizu Pinturak
MARGOKETA OROKORREAN
Empapelatuak
Estukoak
Fatxadak
Eskilarak eta patioak
Pintura industrialak
T. 943 75 1324 M. 652 777 030
Ezoziko etorbidea 24, 2 Behea

ELIZPE Hortz Klinika
GURE ZERBITZUAK
Ortodontzia ikustezina
Inplanteak
✓ DOANEKO BERRIKUSKETAK
✓ FINANTZAKETA ZURE NEURRIRA
✓ KONPROMISURIK GABEKO AURREKONTUA
ETA ORAIN... LAGUN ARO, PADI (HAURREN ARRETARAKO HORTZ PROGRAMA)
Elizburu 3, behea • SORLUZE • Tel. 943 75 25 67

SAN ANDRES
ITURGINTZA
Iturgintza, gasa, eta berogailuak sukaldeak eta bainuak
Errebal kalea 2 behea T. 943 75 16 46

MENDIZABAL
okindegia
Kalebarren 10
T. 943 75 20 91
Baltegieta 6
T. 943 75 13 99
SORLUZE

GILA TABERNA
GOIZEKO 6:30 ETATIK AURRERA ZABALIK
GOSARIAK
ETA PINTXO
GOXO GOXUAK
ERRABAL KALEA 15 T. 943 75 18 34

IÑAKI IÑARRA
HARATEGI ETA URDATEGIA
Enkarguz eskatutako janaria ere prestatzen dugu
Kalebarren 29
Sorluze
T. 943 75 12 49

ELKARTASUN OLATUA EGUNKARIAREN ALDE



Egunkariaren aldeko txorixoak

Soraluzeko euskalgintzakoon partez, Iñaki Iñarra harakinari gure eskerrik beroenak eman nahi dizkiogu, Egunkariaren alde herrian antolatutako ekitaldiak goxatzeko emandako txorixo pilagatik. Beste behin, mila esker bihotz bihotzez.



Euskararen murala zikinduta

Herri sarreran euskalgintzak egindako murala gainetik margotu duenak bere ezjakintasuna agerian utzi besterik ez du egin: batetik kaleko muralen arteko errespetu legea hautsi duelako eta bestetik, halako mezu eder baten gainean idatzi duelako.



Joan zen zapatuan Bilbon batu zen jendetzak, euskaldunok Egunkariaren alde sortutako elkartasun olatua irudikatu zuen. Milaka eta milaka pertsona elkartu ziren, prentsa askatasunaren eta euskalgintzaren aldeko deiarar ozena eginez, gero eta garbiago ageri den "zentsurabekeriaren" kontra. Soraluzetik 55 lagun inguru joan ziren euskalgintzak antolatutako autobusean. Datozen egunetan, salgai jarriko dira.

ZER EGIN?

Euskarazko egunkaria aukeratu egunero

“Beraz, laga erdarazkoa eta aukeratu euskarazkoa, bizi euskaraz!”

Euskaldunok ere badugu geure egunkaria, geure hizkuntzan diharduena: papelean BERRIA eta interneten BERRIA.INFO. Egunero munduan gertatzen denaren berri jakiteko horiek aukeratzea da euskarazko prentsaren alde egin dezakegun ekintzarik eraginkorrena. Gero bai, gero atzetik gainerako egunkariak ikusteak ere merezi du, zela ez, baina aurrena geurea. Munduan gertatzen dena euskaldunon begietatik ulertzen laguntzen digulako eta egiari zor, prentsa estilori duinetako bat duelako.

Gaztiok

Zulotik begira

Soraluze BHI.ko Institutuko abenduko ekintzak

LARRAITZ ARANDO, Aretxabaletan sortutako psikologo eta sexologoa. Abenduaren 3an, euskararen eguna zela eta Ikas2deakeko Larraitz Arando izan zen ikastetxean DBH.4.go ikasleei hitzaldi bat ematen.

Euskaldun Altxorra



“Euskarabakoitzak bizitako guztiaren lekuko da”. Izugarriko sakontasuna duen sei hitzez osatutako esaldi “arrunt” hau bihotzeraino erraztasunez irits daiteke. Izan ere, hemen, Euskal Herrian, ezinbestekoa egiten zaigu milaka pertsona zahar, gazte, zuri eta beltzi gure hizkuntza, munduko gainerako jendearengandik bereizten gaituena, baina atzerritar guztiei eskuak zabalitzen dizkiona. Hala ere, askok ez dute (edo dugu) gure altxorra behar bezala balioesten.

Duela egun gutxi batzuk, DBH.4.ra emakume bat etorri zitzaigun bere bizitzari buruz hitz egitera, eta euskarak garrantzia ikaragarria izan duenaz gain, bere barnealdea aberasteko balio izan diola ere aitortu zigun. Eta, nire ustez, bertan dago gakoa, nahiz eta euskara jende ugariaren ama-hizkuntza ez izan, ez genuke hura ikasi behar behartzen gaituztelako edota eskolan derrigorrezkoa delako horrela hitz egitea, baizik eta norberaren arimak pisu handiagoa hartzeko; hau da, askoz ere baliotsu eta estimagarria bihurtzeko.

Lurreko gainerako hizkuntzek ez ezik, gurea denak ere begirunea merezi du, kultura desberdinen ikurrak baitira guztiak. Horregatik, hiztun bakoitza harro sentitu beharko litzateke bere barrua argitzen eta berotzen duten hizkuntzetaz, hauek inor gehiagok ez dituen eguzki txiki eta distiratsuak izango balira bezala.

Laura Lopez Marin



Jon Arretxe idazlea eskolan

Jon Arretxek bere liburuei buruz hitz egin zigun, eta baita bere bidaia eta denbora pasei buruz ere, guk aurrez, bere Ostegunak izeneko bere liburua irakurrita genuen, fakultateko gazteen istorio ezberdinak kontatzen dituen. Baina bere liburu gehienak bidaiei buruzkoak dira. Guk egindako galdera guztiak erantzun zituen eta baita liburuak sinatu ere. Gehien harritu gintuen gauza Saharara egin zuen bidaia izan zen. Basamortu osoa gurutzatu zuen bizikletaz, eta bi asteko bidaia izan behar zuena, hiru hilabetekoa bihurtu omen zen, galdu egin zelako. Bere umore eta alaitasunarekin oso ondo pasatu genuen.

Iban Ayora eta Ander Gomez

“Lagun arteko hizkerarekin jolasean” Ttakun euskara elkarte

Ekimen honen helburu nagusia erregistro kolokiala lantzea izan da, hizkuntzarekin jolastuz eta ondo pasatuz. Ezagutzen ditugun esamoldeetatik abiatzen gara beti eta ondoren esamolde berriak proposatu zaizkigu egoera desberdinetan erabil ditzagun (ligatzeko, adarra jotzeko, haserre adierazteko eta bestelakoak).

Lantzeko erari dagokionez, dinamika eta joko desberdinen bitartez egin da. Dinamika eta joko hauetan parte hartzea ezinbesteko da, eta hortik bideratzen da esamoldeen lanketa. Xedea, parte-hartzea, esamoldeak erabiltzea eta gustura sentitzea. ☺

GORA

BEHERA

2009 URTEA ARGAZKITAN



01 Urtarrila

Inoiz baino Berbalagun gehiago: Hamabi soraluzetar inguru batu ziren Berbalagunera. Euskaraz ondo zekitenak eta ikasteko gogoz zuedenak, euskaraz egiteko elkartzeko hasi ziren.

03 Martxoa:

Bizikale sortu zen: Bizikale izenarekin osatu zuten herriko dendari eta tabernarien elkarte. Bere sorreran 30 denda, taberna eta jatetxe batu zituen eta otsailetik hona ekimen ugari antolatu dituzte herri merkataritza bultzatzeko.



05 Maiatza:

234 herritar eta hamar enpresa erregulaziopean: Urteko bosgarren hilabetean jakin genuen herriko hamar enpresa zeudela erregulaziopean eta 234 herritarrek aldi baterako etena jasan zutela. Duela bi urte, enpresa bat bera ere ez zegoen egoera horretan.



02 Otsaila

Sora FT. futbol zelaia egiteko egoera salatzen: Futbol elkarteak Ezoziko futbol zelaia egiteko egoera salatzen eta konpontzeko prentsaurrekoa egin zuen, bestela, bere jarduna eteteko arriskuaz ohartaraziz. Irailen berritzeko proiektua onartu eta kontratazio espedienteari hasiera eman zioten 800.00 euroko aurrekontuarekin. Abenduko plenoan obra behin betiko esleitu zen eta lanak urtarrilean hasiko dira.

04 Apirila:

Omenaldi beroa euskara ikasi zutenen: Korrikaren 16. edizioan euskara ikasi dutenak omendu dituzte eta halaxe egin zuten Soraluzen ere, euskararen mundura hurbildutako plaentxiarrak omenduz. Gaueko 23:00etan pasatu zen herritik eta ehundaka lagunek hartu zuten parte.



06 Ekaina:

Iniziatiba Internazionalistak bozka gehien Soraluzen: Europako Parlamentua osatzeko hauteskundeetan Iniziatiba Internazionalistak 456 bozka jaso zituen herrian, botu guztien %30,10-a. Atzetik EAJ (366 botu) eta PSE-PSOE (343 botu). Abstentzioa 2004ko hauteskundeetako baino handiagoa izan zen.



07 Uztaila:

Ostadar bandera udaletxean: Uztailaren 28an Gay Harrotasunaren Nazioarteko Eguna izan zen eta Udaleko plenoan onartutako moduan, lehenengoz ostadar bandera zintzilikatu zuten udaletxeko balkoitik.



09 Iraila

Memoria Historikoa lan talderako deia: Herriko memoria historikoa berreskuratzeko lan taldea osatzeko deialdia egin zuten Udaletik. Urrian bildu ziren lehenengoz hamar bat lagun, 1936an Soraluzen gertatutakoan ikertu eta berreskuratzeko. Lanean dihardute ordutik.

11 Azaroa

Soraluzeko aditz-taulak argitaratu zituzten: Arianne eta Egoitz Unamunok Soraluzeko aditzen gidaliburua argitaratu zuten Badihardugu Euskara Elkartearekin. Herrian aditzen inguruan dagoen nahasmena argitzeko lagungarri izatea nahi zuten egileek.



08 Abuztua:

Osintxuarrak jaietan: Urteroko moduan hogeit bat osintxuarrak hurreratu ziren herrira, euren jaiak hasiera emateko. Mozorrotuta, giro ederrean ibili ziren eta gaztetxean merienda goxoaz gozatu zuten.

10 Urria

Zirkulazioan norabide aldaketak: Joan zen azaroaren 5ean Udal Gobernu taldeak herriko zirkulazioan norabide aldaketak ezarri zituen aparkaleku arazoak hobetzeko. Oposizioko alderdiek euren desadostasuna adierazi zuten.



12 Abendua

Zinea zabalduta zen: Hamabi urteren ostean, joan den abenduaren 4an zineak bere ateak zabalduta zituen "Ate Joka" antzezlanarekin. Ordutik bi antzezlan eta musika eskolako Eguberri kontzertua egin dira bertan, baita Egunkariaren aldeko bideo emanaldia ere.



GABONETAKO KULTUR GIDA



▶ ABENDUAK 21etik URTARRILAK 13ra

- Herriko argazkilarien erakusketa, gaztetxean
Ant.: *Gaztetxeako Hamabostaldi Kulturala*

▶ Eguaztena, ABENDUAK 23

- Eriz Magoa 18:00etan, zinean.
- Sukaldaritza makrobiotiko tailerra: sarrera hitzaldia, 19:00etan gaztetxean.
Ant.: *Gaztetxeako Hamabostaldi Kulturala*

▶ Eguena, ABENDUAK 24

- Olentzero eta Mari Domingirekin kalejira eta opari banaketa: 11:00etatik aurrera, Plaza Barrian. Ant.: *Plaentxi Ikastetxea, Kukumixo, Pil-pilean eta Musika Eskola*
- Presoen aldeko material salmenta eta idazteko postalak: 12:00etan.
Ant.: *Amnistiaren Aldeko Mugimendua*
- Ezoziko Amaren Abesbatzaren ekitaldia: Mesedeetako Amaren egoitzan
- Presoen aldeko Olentzerokin kalejira: 18:30etan estaziñotik
Ant.: *Amnistiaren Aldeko Mugimendua*
- Hator hator gaua: 00:00etatik aurrera Arrano tabernan.

▶ Barixakua, ABENDUAK 25

- Pelikula emanaldia: "La vida de Bryan", 18:30ean, gaztetxean.
Ant.: *Gaztetxeako Hamabostaldi Kulturala*

▶ Zapatua ABENDUAK 26

- Haur Parkea: 11:30etik 13:30era / 16:00etatik 19:00etara, kiroldegian.
- Kontzertua: Insolentes eta Lindane 22:00etan, gaztetxean
Ant.: *Gaztetxeako Hamabostaldi Kulturala*

▶ Domeka, ABENDUAK 27

- Sukaldaritza makrobiotiko tailerra: oinarritzko menu bat eta ostean partehartzaileen bazkaria, 10:30ean gaztetxean.
Ant.: *Gaztetxeako Hamabostaldi Kulturala*

▶ Astelehena, ABENDUAK 28

- Eibarko GUAI haur parkera irteera: 10:30ean, estaziñotik, 1. eta 2. mailako ikasleentzat.
Ant.: *Atxolin Guraso Elkarte*
- Txuri Urdinera irteera: 15:00etan, estaziñotik, DBHko ikasleentzat.
Ant.: *Keixeta Guraso Elkarte*
- Abenduko urtebetetzeak ospatzeko txokolatada eta bingoa: Mesedeetako Amaren egoitzan.
- Sukaldaritza makrobiotiko tailerra: postreak. 17:30ean, gaztetxean.
Ant.: *Gaztetxeako Hamabostaldi Kulturala*

▶ Martitzena, ABENDUAK 29

- Txuri Urdinera irteera, 15:00etan, estaziñotik 5. eta 6. mailako ikasleentzat.
- Bilboko PINera irteera, 15:30ean, estaziñotik, 3. eta 4. mailako ikasleentzat.
Ant.: *Atxolin Guraso Elkarte*

▶ Eguaztena, ABENDUAK 30

- Kuko, Truko eta Bolenwaider pailazoak: 18:00etan, zinean. Ant.: *Atxolin Guraso Elkarte*.
- Antzerki tailerra: 19:00etan, gaztetxean.
Ant.: *Gaztetxeako Hamabostaldi Kulturala*



▶ Eguena, ABENDUAK 31

- 2009 urteko ekintzen bideo emanaldia, bingo berezia eta mahai jokoak: 16:00etan, Mesedeetako Amaren egoitzan.
- Presoen aldeko enkartelada: 19:30etan zubian
- DJ festa: 00:00etatik – 04:00etara, gaztetxean.
Ant.: *Gaztetxeako Hamabostaldi Kulturala*
- Presoen aldeko brindisa: 02:00etan, Plaza Barrixan.
Ant.: *Amnistiaren Aldeko Mugimendua*

▶ Zapatua, URTARRILAK 2

- Ibilaldi arkeologiko gidatua: mendigainetik, goizeko 09:00etan. 11:00etan hamaiketako Karakaten eta 14:30ean bazkaria.
Ant.: *Gaztetxeako Hamabostaldi Kulturala*
- Haur Parkea: kiroldegian, 11:30etik 13:30era eta 16:00etatik 19:00etara.
- Presoen aldeko manifestazio nazionala Bilbon.
Ant.: *Amnistiaren Aldeko Mugimendua*
- Abesbatzaren Gabonetako Kontzertua: 20:00etan, parrokian.
Ant.: *Ezoziko Ama Abesbatza*

▶ Martitzena, URTARRILAK 5

- Erregeen bisita: Mesedeetako Amaren egoitzan
- Erregeen Kabalgata: 19:00etan, Txurrukenetik eliza atarira.
Ant.: *Beti Prest*
- Kontzertua: Burux Lee eta Fly Shit, 22:00etan, gaztetxean.
Ant.: *Gaztetxeako Hamabostaldi Kulturala*

▶ Barixakua, URTARRILAK 8

- Kontzertua: Peachy Joke, Los Cretinos eta Plan B, 22:00etan, gaztetxean.
Ant.: *Gaztetxeako Hamabostaldi Kulturala*

▶ Domeka, URTARRILAK 10

- Elurretara irteera: goizeko 09:00etan, gaztetxetik. Elurrik ez badago, mendi buelta: Sagar Erreka-Krabelainaitz.
Ant.: *Gaztetxeako Hamabostaldi Kulturala*

▶ Eguaztena, URTARRILAK 13

- Hitzaldia: "Azpiegitura eta ekonomia" 19:00etan, gaztetxean.
Ant.: *Gaztetxeako Hamabostaldi Kulturala*

▶ Eguena, URTARRILAK 14

- "Puagh, animal racional". laburmetraiaren aurkezpena eta herriko sortzaileen beste lan batzuk, gaztetxean, 19:00etan.
Ant.: *Gaztetxeako Hamabostaldi Kulturala*

▶ Barixakua, URTARRILAK 15


- Kontzertua: Norman eta PAM, 22:00etan, gaztetxean.
Ant.: *Gaztetxeako Hamabostaldi Kulturala*

▶ Zapatua, URTARRILAK 16

- Elkartasun kontzertuak gaztetxean: Deskontrol eta Orreaga 778.
Ant.: *Amnistiaren Aldeko Mugimendua*

▶ Domeka, URTARRILAK 17

- Afari begetarianoa eta pelikula emanaldia: 20:30ean, gaztetxean.
Ant.: *Gaztetxeako Hamabostaldi Kulturala*



Elurra gustatzen jatzu?

Zelan jolasten dozu herrixa elurtuta daganian?



Bai, neri edurra egittia asko gustatzen jata! Gaur ohetik altxatu eta edurra ikusi dotenian flipatu egin dot! Arratsaldian lagunekin bildu eta elur pelotak egingo ditugu, gero batak bestiar botatzeko. Elurretako panpina be egitten ahaleginduko gara.



Egixa esan, neguan nahixago dot eurixa baino edurra egittia. Herrixa zuri-zurixa daguala ikustia asko gustatzen jata. Normalian edurretan lagunekin jolasten dot, baina edur-lerakin be ibiltzen naiz.



Edurrak lagunekin jolasteko aukera gehixago ematen dau eta horregaittik gustatzen jata. Udako oporrak baina, ez dittut edurragaittik aldatuko!

Neri asko gustatzen jata herrixa edurtuta ikustia. Gaur goizian, emozinuakin etxeko atarira jaitsi naiz, izotz zati bat hartu eta gero hozkailuan gorde dot. Bazkalorduan jantokiko lagunekin ibiliko naiz edurretan jolasten.



Gabonak: Olentzero eta Mari Domingi



Gabonak heltzear edurra mara-mara eta gu eskolan jo ta ke lanean. Hiru hilabete hauetan lan asko egin dugu irakurtzen eta idazten ikasi dugu. Kontatzen ere berrogei arte badakigu. Olentzero eta Mari Domingi gurekin oso pozik eongo direla espero dugu. Eskutitz honen bitartez onak izan garela eta asko ikasi dugula esan nahi diegu. Beraiek etortzeko zenbat egun falta diren kontatzen hasi gara gu.

Horra, horra gure Olentzero.


Gela apaindu dugu ilusio handiz.

Kandelak zintzilik ta kanpaiak ere bai.

Etortzen zarenean esku zabala izan !



DENBORAPASA



Iturria: Luma aldizkaria



ZER IRIZTEN DOTSAZU?

Beste urtebete jua da. Atzera begira ipinita, herrixan gauza asko pasatu dira, onak eta txarrak. Honek danak ez ahazteko, hausnarketia egittia ondo etortzen da.


Zein da zure ustez 2009ko Soraluzeako albisterik onena?

LEIRE ELIZBURU
Ikaslia



Nere ustez Bizikale merkataria alkartian sorreria izan da albiste aipagarriena. Herri merkataritza bultzatzen dabelako. Bestela, urtia orokorrian ondo jua da zer edo zer kenduta, adibidez, norabide aldaketak.

JOSE LUIS PEREZ
Jubilatua



Neretako ez da egon inungo albiste onik edo behintzat nabarmentzeko ezer ez dot ikusten. Oso zaila da bat aukeratzia. Bestela, munduan Obamak AEBtako hauteskundiak irabazi izana albiste ona pentsatzen jata.

VIRGINIA IRIONDO
Etxekoandria



Ez da erreza bat aukeratzien. Bat aittatziarren, Sorako neskak finalera heldu ziranian oso pozgarria izan zan. Penia da aurten ez jarraitzia. Oso zaila da notizia onak gogoratzia, txarrak danak tapatzen dittue eta!

JOKIN ZABALA
Jubilatua



Bialeko aparkalekuak bedarto etorri dira kotxiandabizenendako. Lehen San Andres bidian aparkatu bihar izaten zan eta oin leku gehixago dago. Euskal Herri mailan Errealan lider-gua aittatuko neuke.

KOMIKIXA



Fernando Oregik irabazi du Kontrargiren Argazki Rallya

Azaroaren 22an egin zen Kontrargi Argazki Kolektiboak antolatutako XXI. Argazki Rallya. Guztira 32 parte hartzaile izan ziren. Epaileak Alberto Luke eta Mikel Orozko eibartarrak eta Antonio Valencia donostiarra izan ziren.



Helduen sailkapena:

saria: Fernando Oregi (Soraluze)
saria: Carlos de Cos (Soraluze)
saria: Luis Fco. LLavori (Zumaia)
Herriko argazkilaria onena: Aitziber Mayo

Gaztetxo sailkapena:

saria: Ander Feo (Bergara)
saria: Silvia Loscos (Soraluze)
saria: Inazio Dulanto (Bergara)

Sari banaketa abenduaren 26an eguerdiko 13:00etan kiroldegiko erakusketa aretoan izango dela jakinarazi dute arduradunek.

Fernando Oregik rallyan aurkeztutako argazkia.

Abesbatzaren kontzertua urtarrilaren 2an

Urteroko ohiturari helduz, herriko abesbatzak datorren urtarrilaren 2an (zapata), Gabonetako kontzertua eskainiko du elizan, arratsaldeko 20:00etan.

Zaharren egoitzan emanaldia
Bihar arratsaldean, hilak 24, urtero moduan abesbatzak Mesedeetako Amaren egoitzan emanaldia eskainiko du bertako nagusientzat.

Olentzero eta Mari Domingirekin kalejira

Plaentxi Herri Ikastetxeak, Kukumixok, Pil-pilean Euskara Elkarteak eta Musika Eskolak antolatuta, bihar hilak 24, goizeko 11:00etatik aurrera, kalejira egingo da Plaza Barritik hasita eta jarraian, opari banaketa egingo dute Olentzero eta Mari Domingik.

Rosa Etxeberriak irabazi du bertso porra

2009ko Bertso Txapelketa Nagusiko Finaleko lehenengo hiru bertsolariak asmatzen zituenak, Amnistiaren Aldeko Mugimenduak antolatutako porran jasotako diruaren erdia irabazteko aukera zuen. Rosa Etxeberria izan da, kasu honetan, lehen hiru bertsolariak asmatu zituen. Guztira, 110 euroko diru-saria irabazi du.

Umeen danborradako argazkiak

Kontrargik jaietako haurren danborradako argazkien erakusketa antolatu du. 38 argazki daude ikusgai kiroldegiko erakustaretoan urteko azken egunera arte.



Gaztaina jana eta kantu festa zaharren egoitzan
Abenduaren 17an Mendotz trikitilariaren doinuekin kantuan jardun zuten Mesedeetako Amaren Egoitzako nagusiek, baita gaztainak erre eta jaten ere. Laster, Olentzero eta Mari Domingiren bisita ere jasoko dute.

Lakuesta Optika
Ikusmen arazozen frogak eta argibideak
Parafarmaziako produktuak
Santa Ana, 22 C-behea
20590 Soraluze
T. 943 75 30 59

Belarrak Loradenda eta belardenda
T. 943 75 30 11

KM Desing
Diseinua eta Sormena
Poligono Amillaga, nº 5
Tif.: 943 76 99 85
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:
• Bainugelak
• Sukaldeak
• Horma-armairuak
• Barruko altzairuak

Javier Alonso Zelaia
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
K.Z. 20.000.434
Jon Azkorbebeitia Txurruka
K.Z. 20.000.752

HORTZ KLINIKA
Errabal 1 - Barrenekoa 2 T. 943 75 16 13

MARE ILEAPAINDEGIA
ESTETIKA
SOLARIUM
Errabal kalea 1, beheha
Tel.: 943 75 14 89
20590 SORALUZE

Kontulan Aholkularitza S.L.
Enpresa aholkularitza
Jabe Elkarteak
Aseguruak
Santa Ana, 13 - 1 ezk.
Tifonua: 943 75 17 82 Faxa: 943 75 01 82
20590 Soraluze GIPUZKOA

Kiroldegia BPXport enpresak kudeatuko du

Urte berriarekin batera kudeaketa enpresa berria arduratuko da kiroldegiko jardueraz, BPXport izeneko. Soraluzeako gain, Deba, Hernani eta Anoetako kiroldegietako kirol jarduerak kudeatzen dituen enpresa da. Arau berria ezarriko du: 2009an abonatu izandakoari ez zaio zuzenean abonua berrituko; berriro tramitea egin beharko du. Abonoak egiteko epea urtarilaren 4ean zabalduko da.

Jarduerak probatzeko aukera

Ikastaroari otsailean emango zaie hasiera. Aurretik, urtarilaren 18tik 29ra, kirol jarduerotan dohainik parte hartzeko aukera izango da. Izena emateko kiroldegira jo behar da, urtarilaren 11tik 15era bitartean. Hona hemen zerrenda (eskaintza berria tarteko): aerobik, pilates, 3. adina, GAP-BOSU, multifitness, step-body, training, salsa, stretching, ume txikienezako, umeentzako eta helduentzako igeriketa, aquagym eta ur jolasak. ☞

Binakako I. Frontenis Txapelketa martxan

Abenduaren 27an eta 28an 16 urtetik goragokoen binakako I. Frontenis Txapelketa jokatuko da kiroldegian. Bikote bakoitzak 10 euro ordaindu beharko ditu. "Penn horia" pilota mota erabiliko dela jakinarazi dute antolatzaileek eta bikoteek kolore

bereko kamiseta erabil dezaten eskatu. Informazio bilera gaur, hilak 23, arratsaldeko 20:00etan izango da Mahastia Elkartean. Izena eman nahi duenak telefonoz hauekara deituta eman dezake: 652 744851 (Alberto L.), 665 719819 (Gorka B.) edo 665 480765 (Gorka V.). ☞

Xake Txapelketa Joxean Iñurrietak irabazi du

Joan den domekan Arrano tabernan xaketxapelketa jokatu zen eta irabazlea Joxean Iñurrietak izan zen. Bere finaleko arerioa

Elduayen izan zen. Txurrukan afaria irabazi zuten bi finalistek eta Iñurrietak marmolezko xake taula bat ere bai. ☞

EMAITZAK

FUTBOLA

Sora (Erreg.) - Getariako Keta 4-1
Sora (Kad.) - Anaitasuna 0-7
Amaika Bat - Sora (Jub.) 10-2

PELOTA

Berasaluze IX - Laskurain 19
Olazabal - Zubieta 22

Berasaluze IX - Beroiz 22
Olazabal - Laskurain 15

AGENDA

FUTBOLA

Eguraldiak eragotzita, ondorengo partiduak berriz jokatuko dira:

Eguaztena 23, 19:30ean, Azpetian
Lazkao - Sora (Erreg.)

Zapatua 26, 11:00etan, Antzuolan
Sora (Kad.) - Lagun Onak
Sora (Jub.) - Urki

San Silvestre krosa

Abenduaren 31n, eguena Udaletxetik arratsaldeko 16:00etan hasita 6 km inguruko ibilbidea izango du.

ZORION AGURRAK



Ianire Makinai Milan

Abenduaren 16an 11 urte!
Zorionak neska handi!!
Ondo-ondo pasatu zure egunean!
Besarkada eta muxu handi bat Izarren eta etxekoen partez !!



Julen eta Amaia

Abenduaren 27an eta abenduaren 3an 5 urte!
Zorionak bikote eta mila muxu!



Nora Altuna eta Miren Mendia Altuna

Miren, abenduan 10ian jaixua!
Ongi etorri potxola!



Andrea Dominguez Orio

Abenduaren 27an 4 urte!
Zorionak politta!
Muxu handi bat etxeko guztien partez!



Ilargi Alberdi Casares

Abenduaren 17an 3 urte!
Zorionak guapetona! Zu zara gure etxeko izar distiratsu eta alaia!
Muxu goxo bat etxekoen partez eta txoko-marrubizko bat Ametsen partez.



Alain López

Urtarrilaren 20an 4 urte!
Zorionak gurasoen partez!
Askoi maitte zaittugu!

OHARRAK:

2010eko Pil-pilean aldizkariaren lehenengo alea datorren urtarilaren 15ean kaleratuko dugu.

210. aleko Gutunaren atalean argitaratu zen "Lehenengo zirkulazio araudiaren alde" gutunak, Errabal 8ko bizilagunen izenean sinatuta joan behar zuen; Errabal 8ko bizilagun guztiak baitaude lehenengo araudiaren alde.

jaiotakoak

MIREN MENDIA ALTUNA



hildakoak

BLAS PEREZ MUÑOZ



TXURITXU
zuekin gozatzeko
943 75 24 43
SANTA ANA KALEA 22 BEHEA

TXOKO KAFETEGIA
Kafe ederra hartzeko txokorik onena!
Kalebarren 22, behea, Soraluze. T. 943 75 17

MARI MAR HARATEGIA
Gurean Euskal Herriko produktuak!
Tel. 934 75 24 02
Santa Ana kalea, 4 Soraluze

TXURRUKA JATETXEA
www.txurruka.com
943 75 15 81

LEHIAKETA

► Zein ageri da argazki honetan?



► Saria: **AUSKALO: EUSKAL TRIBIALA!!!**

AURREKO ALEKO ERANTZUNA

► **Irabazlea:** Mariaje Iparragirre eta Elene Etxaniz

► **Arrate Gisasola,** Pil-pilean Euskara Elkarteko langilea da pasa dan aleko argazkixan agertzen zana.



ARGAZKI ZAHARRA



ANTZEZTEKO PREST!

Argazki hau 1915ian etarata dago, oin dala 94 urte eta Maite Narbaizak ekarritakua da. Bertan, antzerkirako jantzitta ageri dira. ☞

Ezkerretik eskumara:

Purificacion Arluziaga, Jorge Arluziaga eta Angela Arluziaga ageri dira.



CARLOS GAUBA LETE

1931KO IRAILAREN 10AN
2009KO AZAROAREN 24AN

Bere bihotzaren ontasunak, ezagutu zutenen artean preziatua izatea lortu zuen.

Senitartekoek eskerrak eman nahi ditugu jasotako dolu adierazpenengatik

